



Espediente zk. : 2024ZAKO0006

Erreg. Data :

Erreg. zk : 000000

Gaia : Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseiluaren 2023ko memoria

Eskatzailea : ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK) P2007200E

Kokalekua: ERRETERIA

Udal Hizkuntza Politikarako AHOLKU KONTSEILUAREN MEMORIA

URTEA: 2023

Dokumentu honetan jasotzen da Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseiluak 2023. urtean izandako jardueraren laburpena.

Urteko bilera kopurua. 2023. urtean, Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseilua 2 aldiz bildu da, zehazki data hauetan:

- Apirilaren 26an

- Irailaren 27an

Parte hartu dutenak. Bilera hauetan ondorengo entitateek parte hartu dute:

- AEK

- Udal Euskaltegia

- Lau Haizetara

- Touring elkarte

- Dejabu

- Errenkoalde

- Oarsoaldea Garapen Agentzia

- Koldo Mitxelena ikastetxea

- Orereta ikastola

- Badalab

- Eguzki elkarte

- Oarso Bidasoako Hitza

- Udalaren ordezkari gisa 3 kide aritu dira: Udal Hizkuntza Politikarako zinegotzia eta 2 teknikari. Legegintzaldi aldaketa izan dela-eta, bi zinegotzik hartu dute Kontseiluaren ardura.



Jorrotutako gai nagusiak: urtean zehar tratatutako gai nagusiak hauek izan dira:

1. 2023-2027rako hizkuntza plangintza: hizkuntza irizpideak eta VII. Plangintzaldia

2022an VI. Plangintzaldia amaituta, 2023-2027 Plangintzaldirako plana prestatu behar du Udalak. Planifikazioa bi fasetan egin dugu:

- lehenengo seihilekoan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak landu: aurreko plangintzaldiko irizpideak oinarri hartuta, epe berri honetarako irizpideak landu
- bigarren seihilekoan hizkuntza ofizialak erabiltzeko plana prestatu 2023-2027 eperako.

Udalaren eguneroko harreman motak kontuan izanda (herritarrekikoak, beste administrazio eta erakunde batzuekikoak eta Udal barnean langile eta politikoen artekoak), ahoz zein idatziz, zerbitzu-hizkuntza, harremanetarako hizkuntza eta lan-hizkuntzarako helburuak definituko ditugu.

2. Badalabekin elkarlana: Nor da euskararen subjektu politikoa?

Zinegotziak Badalabekin elkarlanean gauzatzen ari den ekimen baten berri eman du. Laborategi moduan planteatu da normalean euskararen munduan sartuta ez dauden pertsonengana iritsi beharra. Hau da, kolektibo zaugarriak izateagatik edo dena delakoagatik iristen ez garen eta periferikoak diren perfil batzuetara iritsi eta euskara nola perzibitzen duten aztertu. Helburua da testigantzak jasotzea euskararekin harremantzean dituzten bizipenei buruz. Perfil horien mapa jaso nahi da, beraiengana iritsi ahal izateko.

3. Haurren aurrean helduok heldu: Euskaltzaleen Topagunearen proiektua

Zinegotziak azaldu du proiektuaren helburua dela transmisioan nola eragin daitekeen lantzea.

2021eko inkesta soziolinguistikoaren datuen berresten dute inbertsioa egin behar dela eta interesgarria dela alor honetan sakontzea. Izan ere, helduak eta haurrak elkarrekin daudenean erabilera igo egiten da.

Helburu hau onartu berri dugun Plan Estrategikoan jasoa dugu.

Proposamena da Euskaraldia ez dagoen urteetan 0-12 urte bitarteko haurren guraso eta zaintzaileak aktibatu/sentsibilizatu/ahalduntzea. Modu horretan harremanak saretzea lortuko da eta, ondorioz, erabilera handitzea.

10 eguneko ariketa izango da, urriaren 19tik 29ra. Ikasturte berria hasita ohitura berriak sortu eta garatzeko aukera emango du. Euskal Herri osoan jarriko da martxan eta herri bakoitzak dituen baliabide eta indarraren arabera gauzatuko du.

4. 2019-2023 Legegintzaldiaren balorazioa

Gardentasun ariketa bat egiteko estrategikoak izan diren ekimenen zerrenda egin du zinegotziak:

- Plangintza Estrategikoa berritu: 2021-2026 eparako plangintza onartu berri du Udalak. Kontseilukide



- batzuk esku hartu dute elaborazioan
- Aholku kontseiluaren dinamika berri: arautegia birformulatu eta eta kide berriz izendatu dira
 - Joxepa Antoni Aranberri ekosistema berria martxan jarri (BADALABen etorrera) elkarlana eta sinergiak sortzeko
 - Hizkuntza aniztasunaren lan-ildoak: hizkuntzen topagunea (hizkuntzen mapa)
 - Hezkuntza: errefortzu eskolen egonkortzea ikasle etorri berriei + Bakarriketa leihaketa ahozotasuna lantzeko + Udal Hizkuntza Politika Hezkuntza Mahaian presente dago eta urte osoan harreman zuzena du ikastetxeekin
 - Merkataritza eta ostalaritza: Oarsoaldearekin batera urteroko dinamika (gremio baten lanketa) eta Barra barra proiektua. Eskatu/Eskaini. Enpatiekonomia.
 - Udal Euskaltegia: progresibitatearen aplikazioa matrikulazioan eta web-orria berri da
 - Kale neurketa: soziolingusitika klusterrak egindako neurketak argazki berriua eman du eta hortik abiatuta politikak markatu daitezke
 - Dinamika masiboak: euskaraldia (2 edizio) eta korrika
 - Hizkuntza aniztasuna: hizkuntzen mapa egin da

5. 2023-2027an Legegintzaldirako zinegotzi berriaren aurkezpena

Leire Mazizior izango da legegintzaldi honetan Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseiluaren lehendakaria. Zinegotziak bere burua aurkeztu du eta Udalean izango dituen arduren berri eman du: Udal Hizkuntza Politika, Garapen Ekonomikoa, Landa Garapena eta Kirolak departamentuetako zinegotzi delegatua.

Jarraian datozen 4 urteotan Udal Hizkuntza Politikak izango dituen ildo nagusiak berri eman du, hain zuzen ere plan estrategikoan jasotakoaren arabera.

6. Euskararen hamabostaldia: azaroaren 17tik abenduaren 3ra bitarteko programazioa.

Abenduaren 3an Euskararen nazioarteko eguna dela-eta, urtero bezala euskararen hamabostaldia antolatu du Udal Hizkuntza Politikak. Adin guztietarako programazio-zirriborroa prestatu du departamentuak eta kontseilukideei ekarpenak egiteko eskatu zaie, programa osatua egiteari begira.

Memoria hau udal gardentasun atarira igoko da, guztien ezagutzarako. Halaber, udal kudeaketa txostenen urteko memorian ere txertatuko da.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Stua.: Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseiluko idazkaria

Arantxa Zabala Huizi

OE

Aholku kontseiluko presidentea

Leire Mazizior Egilegor



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZAKO0006-URTEKO MEMORIA_eus/MEMORIA ANUAL_eus (ERRENTERIAKO